

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

ONGIZATE, GAZTERIA ETA ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA

865

AGINDUA, 2025eko otsailaren 18koa, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren sailburuarena, zeinaren bidez iragartzen baita Zerbitzu Zuzendaritzako goi-kargudunaren idazkariaren lanpostua izendapen askeko sistemaren bidez hornitzeko deialdi publikoa.

Goi-kargudunaren idazkariaren lanpostua hutsik dagoenez (520010 kodea, 214 dotazioa), Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Zerbitzu Zuzendaritzan, Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 94.9 artikuluan xedatutakoari jarraituz eta Enplegu Publikoko Zuzendaritzak aldeko txostena eman ostean, eranskinean azaltzen den lanpostua izendapen askeko sistema erabiliz hornitzeko deialdi publikoa iragartzea erabaki du sail honek. Hona hemen deialdiaren

OINARRIAK

Lehenengoa.– Parte hartzeko baldintzak.

Deialdi honetan parte hartu ahal izango dute Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako karrerako funtzionarioek eta EAEko administrazio orokorrarekin lotuta dauden zuzenbide pribatuko ente publikoetako karrerako funtzionarioek, lanpostu-zerrendan ezartzen diren betekizunak betetzen badituzte (eranskinean zehaztuta daude).

Aipatutako langileek edozein administrazio-egoeratan egonda har dezakete parte deialdi honetan, honako egoera hauetan izan ezik:

– Eginkizun-gabetze irmoa ezarrita duten funtzionarioek ezin izango dute parte hartu, egoera horrek dirauen bitartean.

– Norberaren kontuetarako edo familia elkartzeko borondatezko eszedentzian dauden langileek ezin izango dute parte hartu, ez badute bete eszedentzian egon beharreko gutxieneko denbora.

Bigarrena.– Eskabideak.

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik 15 egun balioduneko epean aurkeztu beharko dira parte hartzeko eskabideak.

EAEko Administrazio Orokorren eta haren organismo publikoetan jardunean dauden karre-rako funtzionarioek EIZU enpleguaren atariaren bidez egin ditzakete eskabideak. Jakinaren bidez eta Interneten bidez sar daiteke atari horretara, helbide honetatik: Funtzio Publikoa-Eusko Jaurlaritza-Euskadi.eus.

Gainerako izangaiek erregistro elektronikoaren bidez bidaliko dituzte eskabideak, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Zerbitzu Zuzendaritzara.

Hirugarrena.– Betekizunak eta merezimenduak

Honen eranskinean ezartzen dira lanpostu-zerrendan goi-kargudunaren idazkariaren (520010 kodea, 214 dotazioa) lanpostua betetzeko eskatzen diren betekizunak.

Parte hartzeko eskabideari «curriculum vitae» erantsiko zaio, eta, hor, datu pertsonalak eta taldea, azpitaldea edo kidegoa zehazteaz gain, beste datu hauek ere jasoko dira:

- a) Tituluak.
- b) Administrazio publikoan eta sektore publikoan eta, hala badagokio, enpresa pribatuan betetako lanpostuak, lehiatzen den lanpostuaren antzeko funtzioak dituztenak.
- c) Egiaztatutako hizkuntza-eskakizuna.
- d) Jasotako edo emandako prestakuntza-ikastaroak.
- e) Hizkuntza-ezagutzak.
- f) Eskatutako lanpostuari esleitutako funtzio eta zereginekin lotuta, jakinaraztea egoki jotzen diren bestelako merezimendu eta konpetentzia guztiak.

Eskabidearekin batera, deialdian eskatzen diren betekizunen eta alegatutako merezimenduen egiaztagiria aurkeztu beharko dituzte izangaiek, baldin eta EAeko administrazio orokorraren Langileen Erregistroan ez badaude.

Izangaia deitutako lanpostuaren funtzioetara ongi egokitzen dela bermatzeko, deialdia egin duen organoari aukera ematen zaio izangaia alegatu dituen merezimenduak egiaztatzeko egoki jotzen dituen bitartekoak erabil ditzan; elkarrizketa pertsonala edo proba egin dezake horretarako, edo Giza Baliabideen Zerbitzuko organo teknikoaren txostenak eskatu.

Deialdi hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den datan bete behar dira eskatutako betekizunak, eta esleitutako lanpostuez jabetu arte eutsi behar zaie. Parte hartzeko betekizunak betetzen jarraitzen ez duten parte-hartzaileak ezingo dira jabetu esleitutako lanpostuez.

Laugarrena.– Ebazpena.

Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren sailburuaren agindu baten bidez ebatziko da deialdi hau, gehienez ere hiru hilabeteko epean, eskabideak aurkezteko epea bukatu eta hurrengo egunetik aurrera. Agindu hori EHAAan argitaratu beharko da.

Lanpostua lortzen duen pertsonak esleipen-aginduan ezarritako datan jabetu beharko du lanpostuaz, eta, hala badagokio, aurreko lanpostuaren titulartasuna galduko du.

Ebazpen hori arrazoitzeko, kontuan hartuko da izangaia deialdian eskatzen diren betekizunak eta zehaztapenak bete dituela, izendapena egiteko eskumena dagoela, eta lanpostuari buruz monografian ezarritako eginkizunak eta zereginak betetzeko egokia dela. Horretarako, gainerako izangaiekin (baldin badaude) alderatuko dira merezimenduak (eta, hala badagokio, elkarrizketaren edo probaren emaitza).

Deialdia hutsik geratu dela deklaratu daiteke, baldin eta izangaietako batek ere ez baditu betetzen lanpostuaren betekizunak edo izangaietako bat ere ezin bada egokitzen jo, deitutako lanpostua betetzeko behar beste merezimendu eta konpetentzia ez dituelako.

Bosgarrena.– Errekurtsoak.

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari eta, beronen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke hura eman duen organoari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, dagokion Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

2025eko otsailaren 24a, astelehena

AZKEN XEDAPENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko otsailaren 18a.

Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren sailburua,
NEREA MELGOSA VEGA.

ERANSKINA

LANPOSTUAREN DATUAK

- Deitutako lanpostua: Goi-Kargudunaren idazkaria.
- Kodea: 520010
- Dotazioa: 214
- Eskalak: EGC101 Administrarien Eskala; EGC201 Administrari Laguntzaileen Eskala
- Lanpostu-mailako osagarria: 18
- Berariazko osagarria: VI-A.
- Kokapena: Zerbitzu zentralak
- Herria: Vitoria-Gasteiz.
- Hizkuntza-eskakizuna: 2.
- Derrigortasun-data: 2024/09/13